

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza <sup>info</sup>

Osteguna, 2011ko urriaren 27a. VIII. urtea. 2.297. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)



Tolosako hainbat gozogilek, txurro dendako kide batek, eta Asier de los Rios zinegotziak eskaini zuten atzoko prentsaurrekoa. I. URKIZU

## Iristear da astebururik gozoena

Tolosa Goxua azoka izango da larunbatean; herriko gozogileek omenaldia egingo diete Bizkaikoeti, hango gozo tradizionala den karolina pastela herritarrei banatuz

Gorrotxategi, Eceiza, Gorosti, Gozona eta Saizar gozotegiek postua jarriko dute; Gorrotxategik 1.844 xaxu eta Tolosako txurro dendak 2.800 txurro banatuko dituzte 02

**Amaia Agirre** Bertsolaria

### «Ilusioz eta beldurrez nago; aurretik maila handikoak ezinean ikusi ditugu»

Villabonako bertsolaria Gpuntua txapelketako final laurdenetan ariko da etzi, Hondarribian 05

**Ekitaldiz betetako kultur hamabostaldia antolatu dute Orexan**

Jarduera nabarmenenak Uitzu-Orexa ibilaldia eta herri afaria dira; horrez gain, hitzaldiak, antzezlanak eta ikus-entzunezkoak izango dituzte 07

**Ibon Artola** Euskal Herria Sozialistako kidea

### «Oinarrizko arazoa bankuak eta enpresa handiak gutxi batzuenak izatea da»

Ekitaldi publikoa antolatu dute Euskal Herria Sozialistak eta Engels Ateneoak, gaurko 03



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK

Larrea Poligonoa 34 - 1  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)



**Gertu...**

VILLABONAKO  
HILETA ZERBITZUAK  
BETI LATOKI BULABEA

**24 H..**

943 694 873



Gozona, Gorosti eta Gorrotxategiko ordezkariak aurkezpen agerraldian, Asier de los Rios zinegotziaren alboan. I. URKIZU

## Xaxuak eta txurroak banatuko dituzte larunbateko Tolosa Goxua azokan

Tolosako gozogleek Bizkaiko omenaldi berezia egingo diete, milaka karolina pastel banatuz

### Itzea Urkizu

Beste hainbat gozoren artean, txurroak eta xaxuak banatuko dituzte larunbatean, Tolosako kaleetan. Urteroko moduan, Tolosa Goxua azoka berezia izango da, goizean gozetik, eta hainbat produktu gozo eskuratu ahal izango dituzte bertaratuek.

Tolosan gozogintza tradizionala lanbide duten Gorrotxategi, Eceiza, Gorosti, Gozona eta Saizar gozotegietako arduradunak izango dira Tolosa Goxua festako protagonistak, eta eurekin batera, Tolosako txurro denda ere bai.

Aurkezpen ekitaldian, Asier de los Rios zinegotziak, Eguberriak bitarte Tolosan ospatuko diren azoka bereziak ere aipatu ditu.

Besteak beste, larunbateroko azokaz gain, Euskal Herriko Frisoi Txapelketa, Babarrun Astea, Txuletaren Festa eta Gabonetako Azoka Berezia izango dira datozen asteotan.

Larunbat honetan, goizeko 08:30ean hasiko da Tolosa Goxua azoka berezia, Trianguloa plazan, eta antolatzaileen arabera, «oso azoka orijinala izango da». Tolosako gozogintza tradizionala ezagutzeko aukera izango dute bertaratuek, eta horrez gain, Gipuzkoako gainerako herrietatik, nahiz, Araba, Bizkaia, Ipar Euskal Herria eta Errioxatik ere etorririko dira gozogleak. Bakoitzak bere espezialitateak ekarriko dituen arren, aurten Bizkaiko gozoglei omenaldi berezia egin nahi izan diete Tolosakoek.

### 4.000 karolina

Bizkaiko gozorik tipikoenak arroz pastela eta karolina pastela dira; honen harira, Tolosako bost gozoglek 4.000 karolina egingo dituzte Bizkaiko Gozogleen Al-

kartasunarekin elkarlanean, ondoren herritarrei banatzeko.

Karolina merengezko pastel bat da, baina Bizkaian, arrautza geruza bat eta txokolate geruza bat ematen diote. Azpian, berriz, ostopil modukoa izaten du.

10:30ean hasi, eta 12:00ak arte ariko dira gozogleak karolinak egiten; bertaratuek, beraz, pastelak nola egiten dituzten ikusi ahal izango dute, gero dastatzeko.

### Gazta tarta lehiaketa

Aurten, Tolosa Goxua azokarako herriari zuzendutako lehiaketa antolatu dute: gazta tarta lehiaketa, larunbat goizean. Tolosarrak nahiz kanpotarrek parte hartu ahal izango dute, eta 10:00etatik 11:00etara bitarte, Trianguloan horretarako jarriko duten karpan utzi beharko dira gazta tartak. Tartarekin batera, gainera, tarta egiterako orduan erabilitako errezeta ere entregatu beharko da, ondoren epaimahaiak ikus dezan.

11:00etan, epaimahaia gazta

tartak dastatzen hasiko da. Gozogintzan adituak diren Elena Arzakek, Lourdes Rekondok, Jose Mari Gorrotxategik eta Bizkaiko Gozogleen Alkartasuneko kide batek osatuko dute, aurtengo Tolosa Goxuako epaimahaia.

Horrela beraz, eguerdiko 12:30ak aldera, epaimahaiak gaztarta lehiaketa nork irabazi duen esango du. Lehen saria jasotzen duenak 200 euroko balioa duen

### Herritarrei zuzendutako gazta tarta lehiaketa izango da Trianguloan

saria jasoko du, Tolosako gozotegietan produktuak erosteko; bigarren postuan geratzen denak, berriz, 150 euroko saria jasoko du, hau ere gozoak erosteko. Era berean, parte hartzaile guztien artean, azokako produktuez osaturiko hainbat sorta zozketatuko dituzte.

Antolatzaileek, lehiaketan par-

te hartu nahi dutenei, izena aurrez ematea gomendatu diete. Bi bide erabil ditzakete horretarako: batetik, 943 69 75 21 telefono zenbakira deitu dezakete, eta bestela, [feriak@tolosakoudala.net](mailto:feriak@tolosakoudala.net) helbidera ere idatz dezakete.

### Gorrotxategik, 1.844 xaxu

Tolosa Gipuzkoako hiriburua izan zeneko garaia gogora ekarri nahi izan dute Gorrotxategiko gozogleek. 1844. urtetik 1854. urtera bitarte, Tolosa izan zen gipuzkoarren hiriburu, eta zenbaki hau oinarri hartuta, Gorrotxategik 1.844 xaxu banatuko dizkie herritarrei, bai Trianguloako postuan, baita Plaza Zaharrean duten denda ere.

Rafael Gorrotxategi arduradunak azaldu duenez, «xaxua gozo zaharra da, baina aurten apustua egin nahi izan dugu; kaxa berria ere egin diogu gozoari».

### 2.800 txurro banatzeko

Lau urte dira jada, Tolosako txurro denda berritua jarri zenez gozotik. Honen harira, txurro dendako arduradunek Tolosa Goxua azoka berezia probestu nahi izan dute, denda ireki zuten egunaz gozotik pasa diren egunak zenbatu, eta egun bakoitzeko bina txurro herritarren artean banatzeko.

2.800 txurro egingo dituzte, beraz, txurro dendara gosaltzera josten direnei banatzeko.

### Eceizak betiko pastelak

Eceiza gozotegiko ordezkari Xabier Eceizak agerraldian azaldu duenez, «Eceizak ez du berrikuntzarik eskainiko Tolosa Goxua azokan». Horrela, beraz, bonbak, teilak eta zigarrotxoak, pastak, xaxuak, eta antzekoak jarriko dituzte salgai, Trianguloako postuan.

### Saizarrek ere, tradizioa

Iurre auzoko Saizar gozotegikoek ere, Eceizaren bide beretik, urteroko eskaintza egingo dute Tolosa Goxua azokan, arduradunak azaldu duenez: «Pasteltxoak, kruxpetak, santuen hezurtxoak nahiz teilak eta zigarrotxoak izango dira gure postuan».

### Bonboiak, Gorostiren eskutik

Gorosti gozotegiak, kruxpetez eta santuen hezurtxoez gain, pastel handiak eta txikiak salgai izango ditu azoka bereziko postuan. Hala ere, bonboiak izango dira Gorostiren berezitasunik nabarmena.

### Pantxineta eta errege opila

Azkenik, Gozona Ibañez gozotegiak ere bere produktu tradizionalak eskainiko ditu. Hauek ere izango dituzte betiko gozoak, baina azokako beren berezitasunak, tartez gain, pantxinetak eta errege opilak izango dira. Errege opilak dagokienez, bere gabekoak, kremazkoak eta esnegainekoak izango dira aukeran.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## Iragarki laburrak

### LANA

■ **Lan eskaintza.** Pertsona euskalduna eta espezializatua behar da adineko pertsona bat zaintzeko, Tolosan. Astelehene-tik ostiralera, 10:00etatik 13:00era. Larunbatetan, berriz, 10:00etatik 11:00etara. Interesa dutenek, dei dezatela 658 73 98 12 telefono zenbakira, (14:00-16:00).

### SALGAI

■ **Etxe adosatua.** Tolosan etxe adosatua dago salgai. Eguzkitsua da, eta lau gela, bi bainugela, kumuna, egongela-jangela handia, sukaldea, bi autorentzako gara-jea, txokoa, jardina eta trastelekua ditu. Interesa dutenek, dei dezatela 678 26 76 57 telefono zenbakira.

**Ibon Artola** • Euskal Herria Sozialistako kidea

# «Langileek sortzen duten aberastasuna guztien zerbitzura jarri behar da»

**Imanol Garcia**

Engels Ateneoak eta Euskal Herria Sozialista aldizkariak ekitaldi publikoa antolatu dute gaurko, 19:30ean. Engels Ateneoan izango da, Errementari kalean, eta Ibon Artola ariko da hizlari lanetan.

## Zer asmo duzue ekitaldiarekin?

Bankariak eta enpresari handiak langileen eskubide sozial guztiak erasotzen ari dira, eta datu guztien arabera erasoaldi hau hasi besterik ez da egin. Gaur egungo krisi ekonomiko larriaren aurrean ez dago erdibiderik, kapitalisten irabaziak gizarteko gehiengoaren bizi baldintzak are gehiago okertzearen kontura bakarrik ase daitezke. Sufritzen ari garen eraso eta sistema kapitalistari aurre egiteko Euskal Herria Sozialistaren alternatiba zein den aurkeztuko dugu ekitaldian.

## Deialdian greba orokorra eta jarripena izango duen borroka plan bat behar dela diozue.

Burgesiaren erasoak geratzeko indarra kalean dago, langile eta gazteen antolakuntzan eta borrokan. Krisia hasi zenetik antolatu diren greba orokorrak garrantzitsuak izan dira helburu horretan, baina uste dugu beharrezkoa dela gehiagora joango den eta jarripena izango duen langile klasearen mobilizazio plan edo egutegi bat. Nahiz eta orain arteko greba orokorrek ez duten erasoak atze-

ra botatzea lortu, gure ustez beharrezkoak dira borrokari jarraipena emateko eta mobilizazio plan bati hasiera emateko. Beraz, sindikatuek greba orokor berri bat deitu beharko lukete lan erreformaren, pentsio erreformaren, negoziazio kolektiboaren, erreforma konstituzionalaren, udarako lan erreforma berriaren eta gainontzeko erasoen aurka.

## Egun hauetan Europako Batasunean beste neurri batzuk hartzeko bilerarekin eragiten ari dira. Nola ikusten dituzue neurri horiek?

Burgesia alemaniarraren eta frantziarraren interesak defendatzen dituzten Merkel eta Sarkozyren eskutik, Europako Batasuneko agintarien neurri guztiak norabide berean joan dira eta joango dira. Beraien helburu bakarra kapitalisten irabaziak mantentzea da, langile klasea gehiago pobretzearen kontura.

## Zeinek sortu du zure ustez egungo egoera ekonomikoa?

Ekoiatzeko baliabideen jabe goi pribatuaren oinarrituta dagoen sistema kapitalista da arduraduna. Bankuak, enpresa handiak eta latifundioak gutxi batzuenak izatea da oinarritzko arazoak. Horren ondorioz sistema ekonomiko honek gutxi batzuen interesen arabera funtzionatzen du eta ez herritarren beharren arabera. Funtzionamendu kaotiko horren ondorioz herritarrek eros dezaketena



E. EZEIZA

baino gehiago ekoizten da, aldirika, gehiegizko ekoizpenaren krisiak sortuz. Paradoxa dirudien arren, krisiaren arrazoia ez da produktuen eskasia, hauen ugartasuna baizik. Baina aldi berean, herritarrek inoiz baino zailagoa dute produktu horiek eskuratzea. Guzti honek erakusten du bankuak, enpresa handiak eta latifundioak langileen kontrolpe demokratikoan desjabetuta, posible litzatekeela herritar guztien bizitza duin bat bermatzea.

## Langileak mobilizatzeke motibatuta daudela uste duzue?

Orain arte deitu diren greba orokor arrakastatsuek erakutsi dute

langileek badutela borrokatzeke borondatea mobilizazio eraginkorretara deitzen direnean. Pasa den larunbatean Euskal Herriaren konponbidearen alde Bilbon egin zen 50.000 pertsona inguruko manifestazioak, non gehiengo langileak ziren gazteekin batera, erakusten du herri honetako zapalduak duten mobilizazio gaitasuna eta borondatea.

## Nolakoa da egiten ari diren sindikatuen gaitasuna?

Sindikatuek oinarritzko tresnak izan behar dituzte langileen borrokan. CCOOko eta UGTko zuzendaritzek jokatu dute paper okerrena, desmobilizazioa bultzatuz eta pentsioen erreforma bezalako eraso historikoa adostuz. Baina ELAko eta LABeko zuzendaritzek kasuan, jasaten ari garen erasoaldi honetan, akatsa izan da urtarrilaren 27ko greba orokorri jarraipena ez ematea borroka plan batekin eta greba orokor berriekin. Mobilizazioan oinarritutako sindikalgintza funtsezkoa izateaz gain, gure ustez beharrezkoa da sindikatuek perspektiba sozialista bat izatea, kapitalaren logikan ez erortzeko eta sistemaren laguntzaile ez bihurtzeko. Horregatik, gatazkan dauden enpresen borroka elkartzeko eta koordinatzea, eta krisian dauden enpresak langileen kontrolpean nazionalizatzea defendatzea, sindikatuetako zuzendaritzek oinarritzko lana izan behar da.

**Eta alderdiei?**  
Eskuineko alderdiak kapitalaren ondoan daude. Ezkerreko alderdietako zuzendaritza gehienak ere, beraien oinarri soziala traizionatuz, lan horretan ikusi ditugu. Gizarteko gehiengoaren interesak defendatu nahi dituen edozein ezkerreko alderdik kontutan hartu behar du kapital finantziarioarekin eta enpresa handiekin egiten diren kontziliatze saiakerak etorkizun berbera dutela: hauen helburuak eta beharrak onartzen bukatzea. Horregatik, langabeziaren aurka borrokatzeko, osasun eta hezkuntza publikoaren alde egiteko... beharrezkoa da langileek sortzen duten aberastasuna gehiengoaren zerbitzura jartzea, eta horretarako nahitaezkoa da banka eta enpresa handiak langileen kontrolpe demokratikoan desjabetzea. Hori defendatzea eskatzen diegu ezkerreko alderdiei.

## Olarraingo mendiko bizikleta zeharkaldian ibilbidea aldatu dute

Aurtengoan Urkizutik igaroko da Abraham Olanok Peñak antolatzen duen proba; igandean, 10:00etan, hasiko da

**I. Garcia**

Abraham Olanok Peñak beste behin antolatu du Mendi Bizikletako Herri Zeharkaldia. 23. aldian izango da aurten. Gainera, berrikuntzekin datoz, Jesus Mansok azaldu duenez: «Aurten ibilbidea aldatu egin da eta jaitsiera mendi bideetatik egingo da. Beste urteetako parte hartzaileek eskatu dute eta aurrera eraman dugu». Abraham Olanok eta Ekaitz Agirrek diseinatu dute ibilbidea.

Proba Olarraindik hasiko da. Ondoren San Esteban auzoraino joango dira eta handik Urkizu aldera igotzen hasiko dira. Erdi bidean Albiztur aldera joko dute, eta bertan izango dute lehenengo anoa postua, bai edatekoa eta baita jatekoa ere. Hortik Urkizuraino igoko dira eta han bigarren anoa-postua izango dute, oraingoan edatekoa bakarrik. Urkizutik maldan behera joango dira, mendi bideetatik, eta Olarraingoa auzoa izango da, ohi bezala, helmuga. Hor ere anoa postua izango dute Guztira 23 kilometro inguru egingo dituzte txirindulariek.

Proba igandean izango da, eta 10:00etan emango diote hasiera. Edozeinek parte hartu dezake eta izena probaren aurretik eman behar da. Federatuta daudenak 10



Iaz parte hartzaile ugari izan ziren, tartean Abraham Olanok bera. SARA GOMEZ

euro ordaindu behar dute eta federatu gabe daudenak 15 euro. Azken hauek gehiago ordaindu behar dute seguruarengatik. Parte hartzaile guztiak oparia izango dute, eta hori berritasuna izango da ere: proban zehar atera zaien argazkia emango zaie. Horrez

gain, probaren amaieran zozketa egingo da, tartean, mendi bizikleta bat.

## Auzoko festak

Mendi bizikletako martxa Olarraingoa auzoko festan barruan antolatzen dute. Bihar, ostirala, afaria

izango dute elkartean. Larunbatean proba prestatzen ariko dira. Gauean afaria egingo dute, bertsoari lagunduta. Igandean, probaz gain, 11:30ean haurrentzako jolasak izango dira. Meza ere ospatuko dute, eta bazkariarekin emango diote amaiera ekitaldiei.

# Batez ere, dendariak hartu dute parte Lehiberrik antolatutako IKT astean

Parte hartzaileen %75a eskualdeko bizilagunak izan dira, eta gainontzekoak ingurukoak izan dira

**Rebeka Calvo** Tolosa

Pasa den astean bukatu zen Lehiberri Tolosaldeko Lehiakortasun eta Berrikuntzarako Foroak antolatutako Tolosaldeko Informazio eta Komunikazio Teknologien Astea. IKTren hirugarren edizio honetan hainbat ikastaro eta ekitaldi izan dira, batzuk gizabanakoei begira, baina batez ere, dendari eta enpresei zuzenduta. Parte hartzeari dagokionez, dendariak izan dira gehien animatu direnak. «Parte hartzaileen lan egoerari dagokionez %74 dendariak, enpresariak edota enpresa mundutik etorritako langileak izan dira. %8 ikasleak eta beste hainbeste irakasleak, %5 herri administrazioko langileak eta parte hartu dutenen %5 langabezi egoeran aurkitzen zen», argitu du zentzu honetan, Tolosaldea Garatzenek.

Ekitaldien inguruan, batetik Euskaltel Fundazioak utzitako autobuseko ikasgela mugikorra aipatu dute, eta baita Tolosako KZgunean egin diren lan taile-

rrak ere. Azken hauetan guztira 191 lagunek hartu dute parte.

## Hizlariak

Hizlariak dagokionez, Mondragon Unibertsitateko 4 ikerlari-irakasle arduratu dira lan tailerren dinamizazioaz: Miguel Fernandez, Montse Ereñu, Elixabete Garcia, eta Jesus Lizarraga. Hauek izan dira, era berean, jorratu dituzten gaiak: doako erremintekin lan egiten ikastea lana erraztu alde- ra; internet bidez enpresa lehiakideen berri izatea; interneta erabiltzen ikasi fakturazioa igotzeko; software librea erabiliz kostuak aurrezten ikasi dute; teknologia berrien inguruan eguneratze moduak; internet bidezko erosketak egiterakoan segurtasuna zaintzeko moduak; sare sozialen bitartez erlazio- atzeko bideak; software librea; eta gailu mugikorren erabilera seguru moduak.

## Eskualdeko parte hartzaileak

Parte hartzaileen jatorriari dagokionez, %75a eskualdea bertakoa eta beste %25a inguruko eskualde- detakoa izan dela azpimarratu du Tolosaldea Garatzenek, eta %97ak gaiak interesgarri edota oso interesgarritzat jo du. IKT astea hurrengo urteotan errepikatu beharko litzatekeela ere uste du gehiengoak.

Lehiberri eta Tolosaldea Garatzeneko arduradunak pozik agertu dira IKTk eman duenarekin. Eta ekimenaren helburua «eskualdeko biztanleak teknologia berriek eskaintzen dizkiguten baliabideetaz jabetu eta hauetan ahalmentzea izan da. Izan ere, tresna hauen erabilpenak, gure enpresen eraginkortasun eta lehiakortasunaren eragin zuzena izanik aplikazio erraza eta zuzena duten gaiak jorratzen dituzten doako 14 jardunaldi izan dira eskualdean», argitu dute.



Ikasgela mugikorra ere izan da eskualdean. E. MAIZ

# Immigrazio zuzendariak hitzaldia eskainiko du Tolosako kultur etxean

Jatorkin elkarteak antolatuta Miguel Gonzalezek hitzaldia eskainiko du bihar, 18:00etatik aurrera

**R.C.** Tolosa

Bihar 18:00etatik aurrera, Miguel Gonzalez Eusko Jaurlaritzako Immigrazio zuzendariak hitzaldia

eskainiko du Tolosako kultur etxeko areto nagusian.

Jatorkin elkarteak gonbidatu du familia immigranteak eskolara gerturatzeko abiarazitako kanpainaren barruan. Gonzalezek *Immigrazioa Euskadin: elkarbizitza eta kultur aniztasuna* izeneko hitzaldia eskainiko du. Jatorrineko kideek azaldu dute- nez, hitzaldia irekia izango da, eta adin guztietako pertsonak gonbi- datu dituzte.

# Bonberenea txarangak kalejira egingo du etzi

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoekin batera atera duten lana aurkeztuko dute larunbat goizean

**R.C.** Tolosa

Larunbatean, hilak 29, Bonberenea Txarangaren kalejira izango da 11:30etik aurrera, Pirritx, Porrotx eta Marimotots-ekin batera grabatu berri duten diskoa aurkezteko. Pailazoen kanta ezagunak «Bonberenea erara» prestatu dituzte diskorako, eta hiru pertso- naiek ere txarangaren abestiak

kantatzen dituzte. Lana Bonberenea ekoiztu dute, eta guztira 11 abesti eta 12 ipuin motz jaso dituzte. Pailazoen eta txarangako kide- ez gain Bonberenean urte hauetan egindako lagun askok hartu dute parte: Zea Mayseko Aiora Renteria, Su ta Garreko Aitor Gorosabel, Goseko Ines Osinaga, Doctor Deseoko Francis Diez... Tolosaldeko hainbat artista ere izan dira diskoa prestatzen. CDa- rekin batera DVD bat banatuko dute, bertan *Pirritx eta Porrotx gaztetxean* izena duen dokumentala eta diskoaren bideo-klipa jaso dituztelarik. Bideo-klipa albiste honekin batera ikusi ahal da [tolosa.hitza.info](http://tolosa.hitza.info) webgunean.



## harpidedun izateak badu saria

### zozketa

#### 1 Casa Julian

Bi lagunentzako bazkaria edo afaria

Santa Klara, 6 • Tolosa  
Tel.: 943-67 14 17

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 51



#### 2 Arregi Jatetxea

Bi lagunentzako bazkaria edo afaria

Herriko plaza, 7 • Berastegi  
Tel.: 943-68 30 59

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 52



#### 3 Frida Ileapaindegia

Bi ile mozketa

Letxuga kalea, 2 • Tolosa  
Tel.: 943-57 68 91

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 53



**fridaileapaindegia**

#### 4 Larte Idiazabal jatorriko gazta

Bi gazta

Ameriondo Etxea  
[www.euskalherriko plaza.com/larte-gaztaindegia](http://www.euskalherriko plaza.com/larte-gaztaindegia)

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: 54



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zeineskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adierariz] Aste honetako astearte, asteazken eta ostegun goizean, nahi duzun orduan. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

harpidedunen **TXOKOA hitza** info





L.TERRADILLOS

## Amaia Agirre ◉ Bertsolaria

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa final laurdenetan aurkitzen da; Amaia Agirre billabonatarak hirugarren kanporaketan hartuko du parte, Hondarribiko Jostaldi pilotalekuan, etzi, 17:30ean.

# «Daukadan mailara hurbildu eta nire burua kontrolatzen asmatu nahi dut»

**Asier Imaz** Amasa-Villabona

Helduekin nahiz hurrekin ibiltzen da bertsoan Amaia Agirre (Villabona, 1977), irakasle moduan. Ikasle gazteenekin zegoela hartu du tarte bat, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariaren galderei erantzuteko.

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketaren final laurdenetarako txartela Andoainen lortu zuen billabonatarak. Finalerako hiru geltoki gelditzen zaizkio oraindik, eta lehena, etzikoa izango da. Hondarribiko saioan Aitor Sarriegi, Alaia Martin, Iñigo Izagire, Nahikari Gabilondo eta Haritz Casabalekin ariko da bertsoan. Lehenak aurrera egingo du, eta besteek puntuari begira egon beharko dute. Final laurdenetako hirugarren saioa Jostaldi pilotalekuan izango da, 17:30ean. Sarreerak salgai daude [www.gpuntu.com](http://www.gpuntu.com) web gunean, 10 eurotan arruntak eta 5 eurotan 16 urtetik beherakoentzat.

**Hondarribiko geltokitik hurrengo geltokira joateko nola ikusten duzu zure burua?**

Ilusioz, eta era berean beldurrez nago. Aurreko saioetan maila handiko bertsolariak ezinean eta sufritzen ikusi ditugu, eta horrek zer pentsatua ematen du; zuri gauza berbera gerta dakizulako.

Hala ere, txapelketaren trenean igo eta aurrera jarraitu nahi dut.

**Aitor Sarriegi, Alaia Martin... osagai ederreko saioa dirudi larunbatekoak.**

Seikotea erakargarria zait. Ikusiko da gero zer egiteko gai garen. Kantukideak ezagunak eta gertukoak ditut, eta bakoitzak bereetik ahal duen gehiena emateko modua izaten badu, saio ona aterako da.

**Saiotik saiora beti bezala puntuazioetan gorabeherak ikusten dira. Arlo honetan txapelketa nola ikusi duzu zuek?**

Final zortzirenetan eta final laurdenetan epaileen taldea aldatu egin da, eta badirudi orain puntuen arteko aldea geroz eta txikiagoa dela. Puntuazioei begira itsutu egiten gara, bakoitzak baitaki zein den gaingitu beharreko langa; baina ni nirea egitera joango naiz, eta nire buruarekin gustura geratzen banaiz seguru nago puntuak ere horrela islatuko dutela.

**Bertso maila kontuan hartuta, ezustekorik hartu al duzu Gipuzkoako Txapelketa honetan?**

Udaberriko sailkapen fasetik udazkeneko fasera espero zirenak pasa ziren gutxi-asko, baina orain urduritasunak astindu latzak eman ditu. Ez dut izenik eman nahi, baina finalean aritze-

ko adinako maila zuen bat edo beste bidean geratu dira, eta lastima da.

**Txapelketa honetan zein da zure helburua, azken txapelketetako arantza ateratzea agian?**

Duela lau urte finaleko atea muturraren aurrean itxi zitzaidan, eta duela bi urteko Euskal Herrikoan asko sufritu nuen, eta han ere hurrengo faserako ordezko moduan geratu nintzen. Hortik datoz nire beldurrak, baina hori iragana da, eta aurrera begira jarri nahi dut. Nire helburua saio duin eta txukun bat egitea da, eta finalerdietara igarotzea. Eta behin eskatzen hasita, berriz ere finalean kantatzeko irrika dut, baina finaleko txartelak garesti daude. Daukadan mailara hurbildu nahi dut, nire burua kontrolatzen asmatu.

**Prestaketa aldetik aldetarik egin al duzu?**

Bai. Aurten, kopleto saioak di-rela-medio, azken hilabete honetan Zarauzko eta Oiartzungo bertsoideekin elkartu naiz. Orain arte nire kasa eta bakarrik aritu izan naiz. Ikusiko da fruiturik ematen duen edo ez. Prestaketaren aitzakiarik ez da izaten normalean, hiru orduko tartean zure burua oholztan eroso sentitzea, eta dena parean tokatzean datza sekretua.

# Aizkardik mendiko IV. Argazki Rallya antolatu du

Azaroaren 13an ateratako argazkiekin erakusketa jarriko dute Gurea zineman, 28. Mendi Astean

**A. Imaz** Amasa-Villabona

Aizkardi Mendizale Elkartek IV. Argazki Rallya antolatu du azaroaren 13an. Antolakuntzak esandako mendi ibilbide batean ateratako argazkiak sartuko dira lehiaketa honetan. Argazki Rallyan parte hartzeko ez da euro bakar bat ere ordaindu beharko, dohainekoa baita. Nahikoa izango da azaroaren 13an, igandea, 09:00etan Aizkardi aretora azaltzea.

Mendi ibilbideak 9 kilometroko luzera izango du, eta argazkiak ateratzeko partaideek 4 ordu du-

kiko dituzte. Lan guztiak azaroaren 21etik 24ra Gurea zineman jarriko dituzte ikusgai, 28. Mendi Astearen barruan. Lehen hiru argazki onenek saria jasoko dute, baita publikoak aukeratzen duenak ere. Sari banaketa ekitaldia azaroaren 24ean egingo dute, 21:00etan Gurean.

Zalantza guztiak argitzeko, lehiaketaren inguruko informazio guztia [www.aizkardi.com](http://www.aizkardi.com) webgunean jarri dute antolatzaileek.

**Sari ederrak**

Argazki onenak 150 euroko saria jasoko du; bigarrenak, 100 eurokoa eta hirugarrenak 75ekoa. Era-kusketan ikusleek euren gustuko argazkia aukeratu beharko dute, eta bozka gehien lortzen dituen argazkiaren egileak Iturri-Goxo Jatetxean bi laguntzako afaria lortuko dute.



Iaz Ispiluaren drama argazkiak irabazi zuen lehen saria. HITZA

## hitzaren udazkeneko arropa eskaintza

**Haurrentzako jertsea: 25 €**

**KOLOREAK:**  
Morea • Berdea

**NEURRIAK:**  
3-4 / 5-6 / 7-9 / 9-11

**Helduentzako Jertsea: 29,5 €**

**Kolorea:** beltza  
**Gizon eta emakumeen modeloak**  
**Neurriak:**  
• Gizonak: S-M-L-XL-XXL  
• Emakumeak: S-M-L-XL

**Noiz eta nola egin eskaria ?**  
 Urriak 28 bitarte duzu aukera eskaera egiteko

• TELEFONOZ: 902-82 02 01  
 • POSTAZ: harpidetza@hitza.info



Goiz osoan zehar postu ugari jarriko dituzte ikusteko eta erosteko. HITZA

## Abenduan egin ohi duten Azoka Berezia igandean egingo dute bedaiotarrek

Neguatik eta baratzetako aberastasunarengatik, urriara aurreratu dute Bedaioko azoka

**Eneritz Maiz** Bedaio

Azkeneko urteetan abenduan egin izan duten Bedaioko Azoka Berezia, aurten aurreratzea pentsatu dute antolatzaileek. Urriara aurreratu, neguko baldintza go-gorrei aurre egin nahi diete. Eta garai honetan, baratzetik dituzten berezko aberastasunak eskaini nahi dituzte azokan.

Frontoian jarriko dituzte postuak goiz guztian zehar. Zugasti-

barrena, Etxeberri, Belarmuga, Jazku, Errota, Illorreta, Eskoletxe, Zumizketa, Gurbilla txiki, Gurbil haundi, Arrupe, Eletxe, Birtarte, Larrañeta eta Bedaio Barrena baserriek hainbat jaki goxo, animalia eta beraien baratze eta soroetan mimo handiz erein eta jasotako produktuak izango dituzte erakusgai eta erosgai.

Ez da faltako, gaur egun hainbesteko fama hartu duten babarrunak. Baina babarrunez gain, onak eta gureak diren gaztak, taloak, odolkiak, mondejoak, ogiak, sagarrak, ... izango dira. Animalien artean: zaldiak, ahuntzak, oiloak, untxiak, ardiak, behiak, ... egingo dira.

Eskulangintzak ere izango du tartea: margolanak, harigileak,

artisautza, antzinako lanabesen erakusketa, ... Amartzuz auzoa ere presente egongo da Bedaion. Beraien bitartez, Nikaraguarri lekutxo bat egin diote.

Azkenik, umeek ere lekua izango dute, eta partaidetza zabaldu nahi dute. 12:00etatik 13:00etara bitartean eskulan tailerra izango da txikienezat. Goizean zehar haurrek azoka girotuko dute beraien musika instrumentuen doinuekin.

Bertako produktuekin osaturiko saski eder bat zozketatuko dute, eta 14:00ak aldera aterako dute zenbaki saritua. Zer ikusia eta zer dastatua izango da Bedaion igandean. Bedaiotarrek guztiak gonbidatu eta animatu nahi dituzte azokaz gozatzera.

## Montau abesbatzaren kontzertua izango da Alegiako elizan

Bigarren aldia da herrira etortzen direla; hamabost kanta abestuko dituzte, horietatik hiru euskaraz

**E. Maiz** Alegia

Larunbatean, hilak 29, Bartzelonako Begues herriko Montau abesbatzak emanaldia eskainiko du. Emanaldia Alegiako elizan 20:00etan izango da. Alegiako Txintxarri abesbatzak Bartzelonako Begues herriko Montau abesbatzarekin duen harremana aspaldikoa da, eta Alegiara datoren bigarren aldia da. Bartzelonako abesbatzak hamabost kanta abestuko ditu Alegiako elizan, eta horietatik hiru euskaraz abestuko dituzte: *Maitia nun zira*, *Jeiki, jeiki* eta Aita Madinaren *Aita Gurea*. Emanaldia ikustera joateko, guztiak gonbidatuta daude.

## Alkizako Udalak Herri Ostatuaren kudeaketa lehiaketara ateratu du

Ostatuan lan egiteko interesa duenak azaroaren 8a baino lehen aurkeztu beharko du bere proiektua

**E. Maiz** Alkiza

Alkizako Udalak Herri Ostatuaren kudeaketa lehiaketara ateratu du. Interesatuak beraien proiektuak aurkezteko azken eguna azaroaren 8a, asteartea, izango dute. Kudeakatarako pleguak urriaren 11n argitaratu ziren. Informazioa udaletxean bertan eskuratu daiteke, edo 943 69 02 35 telefono zenbakira deituz. Horrez gain, [www.alkiza.net](http://www.alkiza.net) webgunean ere zintzilikatuta jarri dituzte. Bertan zehazten dira ustiapena aurrera eraman ahal izateko beharrezkoak diren oinarriak, eta beharrezkoak diren datuak zeintzuk diren ere.

## Irudia | Ikaztegieta



## AZKENEAN BOTA DITUZTE

Urte asko itxaron ondoren, azkenean bota dituzte Rufinenea eta Muñondo etxebizitzak. Jabetzetako batekin izandako arazoak tarteko, urteetan egon da udaletxe zaharraren atzeko eraikina bota gabe. Pasa den astean hasi ziren botatzen, eta egun gutxi barru eremu guztia garbituko dute. Hasiera batean, aparkaleku erabilera izateko moduan utziko dute. Ondoren, bertan etxebizitzak egiteko proiektua dago. **E. MAIZ**

## Jubilatuen Egunerako izena emateko azken eguna da gaur

Jubilatuek egun osoko festa izango dute; bazkarian bertsoak eta trikitia izango dituzte giroa alaitzeko

**E. Maiz** Altzo

Altzoko Udalak Jubilatuen Eguna antolatu du. Hilaren 30ean, igandean, izango da. Besteak beste, bazkaria izango dute, eta horretarako nahitaezkoa da izena ematea. Udaletxean eman behar da izena, eta gaur da horretarako azken eguna. Udaletxera joanez edo 943 65 24 13 telefono zenbakira deituz egin daiteke.

12:00etan Meza nagusia izango da, eta meza ostean Altzo Artea



Aspalditik ospatzen dute Jubilatuen Eguna, Altzon. HITZA

dantza taldeko dantzariak beraien emanaldia eskainiko diete. Era berean, erakusketa bat ikusteko aukera ere izango da. Kasu honetan, Nafarroako bidaiako argazkiak izango dira, eta udaletxeko behe solairuan jarri dituzte.

14:15ean, bazkaltzeko eseriko

dira. Bazkaria, Arandia jatetxean izango da, eta bertsolariak eta trikitilariak alaituko dute bazkaloste. Mañukorta eta Zeberio bertsolariak bertan izango dira, eta trikiti doinuak, berriz, Ane herriarrak eta Olatz alegiarrak jarriko dituzte.



Pasa den urteko kultur hamabostaldian taloak egiten egon ziren gaztetxoak. I. GARCIA

## Bi astez kulturaz blai

Azaroaren 5era arte hamaika ekitaldi izango dira; Uitzzi-Orexa ibilaldia eta herri afaria dira nabarmentzekoak

**Iñigo Terradillos** Orexa

Atzo ekin zion udalak urtero antolatzen duen kultur hamabostaldia. Datozen egunetan, eta izenari men eginez, bi asteko iraupe-narekin kultur ekitaldiz beteriko egitarauaz gozatzeko aukera izango da. Hitzaldietatik hasi, eta txango eta herri bazkarietara, denarik izango da, adin guztiei zuzendua, gainera.

Tradizio handiena duen ekimena Orexa eta Uitziren artean egin ohi duten ibilaldia izaten da. Aurtengoa 24.a da, eta ohi bezala, Uitzitik Orexara etorriko dira, eta Orexan bertan bazkarian bilduko dira denak. Urriaren 30ean izango da, eta hamabost egunen buruan, gauza bera egingo dute, baina alderantziz, hau da, Orexatik Uitzira.

Hitzaldi eta antzerkiek lekua izango dute egitarauan, eta baita ikus-entzunezkoek ere. Aurten-

### ↓ Kultur hamabostaldia

#### EGITARAUA

##### ■ Urriak 28, ostirala.

19:00etan, talo afaria; ondoren, bideo emanaldia: zinema mutua.

##### ■ Urriak 29, larunbata.

16:00etan puzgarriak eta txokolatea gaztetxoentzat. 22:30ean, antzerkia: *Ogiyik ekarri etzuz semia* (Txirene antzerki taldea).

##### ■ Urriak 30, igandea.

09:00etan, XXIV. Uitzzi-Orexa ibilaldia. 14:00etan, herri bazkaria, Irati, Ane eta Joxe Leonen kantaldiak alaiturik.

goan, zine mutua eskainiko dute: «Gaur egun ez dago aukera handirik horrelako zinema ikusteko, beraz, zine mutua ematea erabaki dugu, garai zaharrak oroitze alde-» azaldu dute udaletik.

Bazkari edo afarien aitzakian maiz bilduko dira herritarrek kultur hamabostaldian. Hala, talo afaria egingo dute, «batez ere jende heldua erakartzeko». Gaztaint jatea ere bai, aurrez mendi

##### ■ Azaroak 1, asteartea.

16:30ean mendi irteera gaztaintak bilduz; ondoren, gaztaint jatea.

##### ■ Azaroak 2, asteazkena.

19:30ean, hitzaldi didaktikoa sagardogintzari buruz, Gillemo Castañón etnologoarekin (Gipuzkoako sagardogileen elkarteak).

##### ■ Azaroak 4, ostirala.

20:00etan, euskal musikari buruzko saio didaktikoa, O+Hatz taldearen eskutik.

##### ■ Azaroak 5, larunbata.

21:00etan, herri afaria. 00:00etan, Ai Ene erromeri taldea; ondoren, DJ Txoko.

ibilaldian gaztaintak jasota. Azken egunetan egingo dute herri afaria, eta bertarako txartelak azaroaren 2a baino lehen eskuratu ahaliko dira tabernan. 130-140 lagun bildu ohi dira urtero afarian, eta honen ondoren festa giroa izaten da, musikak lagundurik. Udaletik diotenez, «azken batean, kultur hamabostaldiak jai ukitua ere badu; helburu nagusia herriko jendea elkartzea da».

# Denboraldi berria hastear

Bihar hasiko da zine denboraldi berria; 'El hombre de al lado' filma izango da ikusgai asteburu honetan

**I. Terradillos** Leiza

Atsedenaldiaren ostean, bihar hasiko da Leitzako zine denboraldi berria. Ohiko moduan, ostiraletan eta igandetan izango da filmak ikusteko aukera, bai helduentzat, bai eta gaztetxoentzat ere.

Astean helduentzako film bat eskaintzen dute, eta hilean behin, azken asteburuan haurrentzako filma. Orduetgia eta salneurria iragan denboraldiko bera izango da. Hau da, ostiraletan 22:30ean izango dira saioak, eta igandetan, berri, 19:30ean. Helduentzako filmak ikusteko 6 euro ordaindu behar da, eta gaztetxoek zuzendurikoak ikusteko, 3 euro.

Maria Uriarte leitzarra arduratzen da filmen proiektzioen koordinazioaz. Leitzako Udaleko kultura sailak pelikulen alokairua ordaintzen du, eta berak egiten

du aukeraketa. Uriartek azaltzen duenez, oreka mantentzen saiatzen da: «Filmek gutxienez kalitate maila izaten saiatzen naiz; askotarikoak aukeratzen ditut, bai gai aldetik, bai eta jatorriari dagokionean ere. Halaber, arrakasta itzela duten filmak ere sartzen ditut». Haurrentzako filmen aukeraketa, berri, guraso elkar-atea arduratzen da.

#### Ohikoak eta haurrak

Maria Uriartek dioenez, 15 eta 35 urte bitarteko herritar gutxi joan ohi da zinemara: «Horiek, normalean, Leitzatik beste herrirentzako joan ohi dira filmak ikustera». Helduetan, berri, «asko joaten dira maiztasun handiz», eta haurrei dagokienez, «asko dira Leitzako zinemara pelikulak ikustera doazenak».

Bihar hasiko da, beraz, denboraldi berria. Hau irekitzearen ardurak *El hombre de al lado* filmak izango du, bihar eta igandean izango delarik ikusgai. Argentinarrak komediaren ondoren, Coen anaien *Valor de ley* filma emango dute, eta honen ostean, Brillante Mendoza filipinar zuzendariaren *Lola* pelikula.

Daniel Aroz eta Rafael Spregelburd, *El hombre de al lado* filmekoak. HITZA

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

ESKELAK • 18:30ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@hitza.info / Tel.: 943-65 56 95





|             |          |
|-------------|----------|
| GOIZA       | LAINTUTA |
| ARRATSALDEA | LAINTUTA |
| BEROENA     | 13°      |
| HOTZENA     | 12°      |

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendariak:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitateak:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoetalea:** 687 410 022. anoetalea@hitza.info.  
**Ibarraldeak:** 687 410 118. ibarraldeak@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzaldeak:** 687 410 118. leitzaldeak@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Hernialde, Irura, Leitza, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

## Agenda

### KIROLA

■ **Tolosa.** Oargi mendi elkarteak azaroaren 4tik 6ra Iratiko oiha-nera joateko irteera antolatu du. Izena emateko [info@oargi.org](mailto:info@oargi.org) helbidera idatzit behar da edo 688 698 642 telefonora deitu.

### ZINEMA

■ **Tolosa.** *El ingenio salvaje* zine forumaren barruan, gaur, 19:15ean eta 21:45ean.

### DEIALDIK

■ **Ibarra.** Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde plataformaren hitzaldia gaur, 19:00etan udaletxean.

■ **Bidania.** Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde plataformaren hitzaldia gaur, 21:00etan udaletxean.

■ **Tolosa.** Euskal Herria Sozialistako Ibon Artolak hitzaldia eskainiko du gaur, 19:30ean Engels Ateneoan.

■ **Tolosa.** Kutxa Bank-i buruzko hitzaldia gaur, 19:30ean udal-tertxo pleno aretoan. Bertan, Jo-xean Urkiolak Bilduk gai honen inguruan duen jarreraren berri emango du.

■ **Tolosa eta Areso.** Asis Sarearen otoitzaldiak izango dira gaur, Tolosan eta Areson. Tolosan Klarisen komentuan bilduko dira 19:30ean, eta Areson Jasokundearen Ama Birginaren elizan ordu berean.

■ **Tolosa.** Amartzoko Beti Gaztak elkarteak irteera egingo du etzi, urriak 29. 08:45ean irteerako dira Zumardi Txikitik Lodosa aldera. Amartzotik berriz,

09:00etan irteerako dira. Era berean, gogoratu behar da, elkarteak eskulan eta joskintza tailer-rrak antolatu dituela. Joskintza ikastaroa azaroaren 8an izango da 16:00etatik 18:00etara, eta eskulan tailerra azaroaren 9an izango da 16:00etatik 18:00etara. Bi ikastarok 42 euroko prezioa dute eta informazio gehiagorako 676 241 960 telefonora deitu behar da.

■ **Alegia.** Azaroaren 6ko Txin-txarri Egunerako txartelak erosteko azken eguna urriaren 30a izango da.

■ **Tolosa.** Udaberri dantza taldeak helduentzako ikastaroa antolatu du. Izena [www.udaberri.com](http://www.udaberri.com) webgunean eman daiteke azaroaren 2ra arte.

■ **Alkiza.** Amañili Alkizako emakume taldeak antolatuta, hitzaldia eta tailerra egingo dute etzi, urriaren 29an. *Educar para la libertad* hitzaldia 15:00etatik 16:00etara bitarte izango da, eta *Fracaso escolar* tailerra 17:00etatik 20:00etara. Parte hartzea doakoa den arren izena eman behar da [amanili.alkiza@gmail.com](mailto:amanili.alkiza@gmail.com) helbidean.

## Farmaziak

### GAUR

■ **Tolosa.** Olarreaga, M. Martin Jose Irala, 10. 943 67 24 38.

■ **Betelu.** Carrillo, A. M. Nagusia, 5. 112.

■ **Irurtzun.** Mutiloa, A. M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

## Agurrak



Disfrutatzeko garaia heldu zaizu.  
Zorionak Joxe Antonio!  
Zazpi Bide elkarte.



### Urte askoan!

**Hegoi Baraibar Goñi (Areso).**

Zorionak Hegoi eta ondo pasa zure 7. urtebetze egunean. Muxu handi bat Berrobiko aiton-amonen partez.

**AGURRAK**  
943-65 56 95  
[tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

●●●● **agurrak**

## Programazioa

### 28 KANALA

- 08:30. On ein.
- 09:00. Amaigabeko istorioa.
- 09:30. Tolosaldean Gaur.
- 10:00. Walker.
- 10:30. Ikusmira.
- 11:00. Nire herrie.
- 11:30. Tolosaldean Gaur.
- 12:00. Estetika.
- 12:30. Berbetan.
- 13:00. Foorfur.
- 13:30. Tolosaldean Gaur.
- 14:00. Walker.
- 14:30. Nire herrie.
- 15:00. Tertulia.
- 15:30. Tolosaldean Gaur.
- 16:00. Estetika.
- 16:30. Berbetan.
- 17:00. Foorfur.
- 17:30. Tolosaldean Gaur.
- 18:00. Kafe t'erd.
- 18:30. Gipuzkoa kultura.
- 19:00. Bizitegia.
- 19:30. Tolosaldean Gaur.
- 20:00. Artearen ibilbidea.

(\*16:30etik 20:00etarako blokea lau ordu errepikatuko dute)

### TXOLARRE IRRATIA (107,6)

- 11:00. Tolosaldeko Ahotsa albistegia. Besteak beste, Tolosa Goxua azoka izango dute hizpide.
- 12:00. Tolosaldeko Ahotsa magazina. Besteak beste, ikusentzunezko Ondarearen Munduko eguna dela eta, Mintzolan abiarazi duen Euskal Herriko Ahozko Corpusaren Diagnostiaz ariko dira Ainitze Oruesagastirekin, eta Orexa kultur hamabostaldian inguruan ere hitz egingo dute.
- 13:00. Lehiaketa.
- 13:30. Info 7 irratiko albistegia. ■ 14:00. Tolosaldeko Ahotsa albistegia.
- 16:00. Pastadun.
- 17:00. Kabitik plazara.
- 18:00. Tolosaldeko Ahotsa magazina.
- 19:00. Tolosaldeko Ahotsa albistegia.
- 20:00. Info 7 irratiko albistegia.
- 20:30. Aittitta.
- 21:30. Arrakala.

## PLAN PREVER PEUGEOT 2.600€ ZURE KOTXE ZAHARRARENGATIK

P-5008



**TOLOSA MOTOR, S.A. PEUGEOT KONTZESIONARIOA**

San Esteban auzoa, 14-A • 20400 TOLOSA • Tel.: 943 650 337 / Faxa: 943 652 938 • [tolosa@tolosa.redpeugeot.com](mailto:tolosa@tolosa.redpeugeot.com)

